

## Mendiko zinema onena Iruñeako Golem Baiona zinemetan otsailaren 6tik 9ra Mendi Tourrarekin

- BBK Mendi Film Bilbao Bizkaia jaialdian nabarmendutako 11 pelikula dakartza Iruleako Mendi Tourraren 8. edizioak
- “Los Tiempos Cambian” pelikula nafarraren Iruñeako estreinaldia

### PRESS KIT

MENDI TOUR, Mendi Film nazioarteko jaialdiko film onenen zirkuitu ibiltaria, Iruñeko Golem Baiona zinemetan aurkeztuko da 2023ko denboraldia hasi berritan. **Otsailaren 6-7-8-9an, MENDI TOUR PAMPLONA/IRUÑA**k bere 8. edizioa ospatuko du, Nafarroako hiriburuan. Saioetara bertaraten direnek mendiko zinemarik onenarekin eta berrienarekin gozatuko dute beste behin.

Alpinismoa, izotz eta haitz eskalada, dantza bertikala, muturreko eskia, ur bizietako kayaka, esplorazioa eta natura basatiko 11 film proiektatuko dira. Guztiak, 2022ko abenduko BBK Mendi Film Bilbao Bizkaia jaialdian sarituak eta hautatuak izan ziren filmak.

Gidoi landuak, argazki bikainak, ikuslea abenturan murgiltzen duten soinu-bandak... kalitate oneneko zinema, bogan dagoen genero honetako zuzendari onenen eskutik. Zinema-saio hauek gomendagarriak dira mendizaleentzat, zinema dokumentala maite dutenentzat eta, orobat, publiko zabalarentzat.

Bi saio eskainiko dira eguneko (17: 30ean eta 20: 00etan), bietan programazio berarekin. Sarrerek [Golem.es](http://Golem.es) eta [mendifilmfestival.com](http://mendifilmfestival.com) webguneetan eros daitezke, baita leihatilan ere. Lau egunetako bonuak 20 € balio du eta banakako sarrerek 6 €.

Mendi Film Festival elkarteak eta Golem Zinemek elkarlanean antolatzen dute ekitaldia, EITB taldearen babesarekin, eta Nafarroako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioaren eta Skymetraje jaialdiaren laguntzarekin.

## MENDI TOUR GOLEM BAIONA 2023

Aipatzekoa da **“An Accidental Life”** filma, Sari Nagusia Bilbon, Henna Taylorrek zuzendutako lana, Quinn Brett eskalatzailer ezagunaren egungo bizitza berria erabat oinarritua, Yosemite bost urte lehenago istripu larri bat izan zuen eskalatzailer aparta.

**“From shade to light”** eta **“Egoland”** filmek bina sari jaso zituzten Bilbon. Lehenengoa Seb Montaz ezagunarena, Kilian Jornet edo Flying Frenchiesekin lan egindako zuzendari frantziarrarena, eta bigarrena Ignasi López zuzendari kataluniarrarena, stop-motion animazio teknikaren maisua.

Kutsu nafarra, aurten, José Manuel García Serranok zuzendutako **“Los tiempos cambian”** pelikulak dakar. Koldo, Maider, Txispi eta Juanjo dira protagonistak, lau lagun erretiratu, horma estetiko eta ederretan eskalatzeko elkartzen diren lau lagun erretiratu. Pelikulafen Iruñeako estreinaldia izango da.

### Otsailak 6 astelehena



Epaimaiakideen Aipamen  
Berezia + Ikusleen Saria

#### EGOLAND

The Great Troll mendiaren gailurrera iristear daude Marek Molek eta Bruno Grassi, artean inork eskalatu gabeko mendia. Baina, ekaitz erauntsi betean, indarrak ahituta, eta elur baldintza eskasekin, gailurrera iritsi ezinik geratuko dira, bertatik bertara eduki arren. Eztabaida piztuko da bien artean: egia kontatu ala ez. Stop-motion animazioa.

*\*Traupena 19' / Jatorrizko bertsoa: hitzik gabea*



Argazkilaritza Onena


#### EPHEMERAL

Eskoziako neguko eskaladaren historiako denboraldi gogorrenetako batean, Guy Robertsonek eta Greg Boswellek lehen igoera apartak egingo dituzte agertoki ikusgarrietan. Simon Richardson eta Helen Rennarden testigantzek laguntzen diote eskalatzaileraren ekintza zirraragarriari.

*\*Traupena 56' / Jatorrizko bertsoa: ingelesa*

# mendi tour

Lo mejor del  
**Mendi Film**eko onena




Sail Ofiziala

## LOS TIEMPOS CAMBIAN

Erretiratu talde batek 400 metroko horma bat eskalatuko du El Tobazon, Canfranc haranean, Pirinioetan. Bizitzaz eta egunerokotasunaz gozatzeko duten grina, haien testigantza eta istorioen bidez erakusten da. Denboraren iragaiteari buruzko hausnarketa, zahartzaroaren garrantzia eta bizitasuna aintzat hartuz.

*\*Iraupena 22' / Jatorrizko bertsioa: gaztelania*

## Otsailak 7 asteartea



Beca Mendi Film Bizkaia  
Ternua Beka

## LOBOS

Asturiasko herri txiki bateko abeltzainak otsoa ehizatzeko debeku berriaren aurka agertu dira. Otsoarekiko kezka eta beldurrari buruzko erretratua da hau.

*\*Iraupena 30' / Jatorrizko bertsioa: gaztelania/bable*



Epaimahaiaren Saria

## THIS IS BETH

Beth Rodden historiako eskalatzailerik emankorrenetako bat da. Ibilbide arrakastatsu horrek, ordea, errealitate gogorra du atzean ezkutatuta: bere gorputz-itxurarekin eta barne-hizketaldi krudelekin borroka betean bizi izan da Beth. Dinamika suntsitzaile hori eraldatzen asmatu du, ordea, eta eskaladari eta bere buruari zor dion maitasuna berraurkitu du.

*\*Iraupena 18' / Jatorrizko bertsioa: ingelesa*

Asociación cultural Mendi Film Festival Elkarte



Edif. Ensanche. Plaza Ensanche, 11. 48009 - Bilbao - (Bizkaia) - SPAIN

press@mendifilmfestival.com

www.mendifilmfestival.com



# mendi tour

Lo mejor del  
**Mendi Film**eko onena




Sail Ofiziala

## DOO SAR

Andrzej Bargiel eta Jędrrek Baranowski Karakorum mendigunean. The Karakoram Ski Expedition-en helburua Hushe haranean bi seimilako eskalatzea eta eskiatzea da: Yawash Sar II eta Laila Peak.

*\*Iraupena 46' / Jatorrizko bertsioa: poloniera/ingeleza*

## Otsailak 8 asteazkena




Sail Ofiziala

## IRETARGI

Otsoen ilargia, 2022ko otsaileko ilargi betea, Etxaurin. Dantza bertikalaren eta eskaladaren arteko fusioa. Ilargia orraztuz dantzan dabilen lamia, eta eszenarekin liluratuta dagoen kamera. Felipe Eizagurrek, Yhabrilek eta Janire Etxabek gorpuztutako sekuentzia artistikoa.

*\*Iraupena 3' / Jatorrizko bertsioa: hitzik gabea*



Sail Ofiziala

## INTO THE ICE

Hego Amerikako muturrean dagoen ia esploratu gabeko mendikatea da Darwin. 2022ko udaberrian, zazpi lagunek nabigatu, eskalatu eta esploratu zuten, bertako glaziarrak klima-aldaketari nola erantzuten ari diren ikertuz, eta Roncagli eta Cerro Sara mendien lehen igoyerak osatuz.

*\*Iraupena 30' / Jatorrizko bertsioa: gaztelania/ingeleza*

Asociación cultural Mendi Film Festival Elkartea



Edif. Ensanche. Plaza Ensanche, 11. 48009 - Bilbao - (Bizkaia) - SPAIN

press@mendifilmfestival.com

www.mendifilmfestival.com








Zuzendari Onena + Mendiko  
Film Onena

## DE L'OMBRE À LA LUMIÈRE – FROM SHADE TO LIGHT

Charles Dubouloz alpinista frantziarra lehena izan da Grandes Jorasses-en (Chamonix, Frantzia) ipar isurialdeko "Rolling Stones" bidea (5.10 A3, edo M8, 1100m) neguan eta bakarka eskalatzeko. Zer pasatzen ote da haren burutik erronka historiko horri aurre egitean?

*\*Iraupena 61' / Jatorrizko bertsoa: frantsesa*

## Otsailak 9 osteguna




Sail Ofiziala

## A BAFFIN VACATION

Erik Boomer eta Sarah McNair-Landry 45 eguneko espedizio batean murgilduko dira Baffin irlako paraje urrun eta galduetan barrena. Eskalatzeko horma ikusgarriak eta ur-lasterretako kayakean nabigatzeko ibai esploratu-gabeak aurkitzea dute helburu.

*\*Iraupena 12' / Jatorrizko bertsoa: ingelesa*



Sari Nagusia

## AN ACCIDENTAL LIFE

Quinn Brett-ek eskalada istripu larria jasan zuen El Capitanen, Yosemite, 2017ko urriaren 11n. Gertatutakoaren berri kontatu dezake, mirariz eutsi baitzion bizirik, baina gerriz behera elbarri geratu zen eta horri aurre egiten ikasi behar izan du geroztik.

*\*Iraupena 86' / Jatorrizko bertsoa: ingelesa*